

**EUSKARA HUTSEKO UDALEKUETARA JOAN DIREN  
HAUR ETA GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK**

**1. Oinarrien xedea.** Oinarri hauen xedea da euskara hutseko udalekuetara joaten diren haur eta gazteendako dirulaguntza deialdia arautzea.

**2. Dirulaguntzaren gaiak.** Deialdi honek 2026. urteko udan egingen diren eta honako ezaugarri hauek dituzten udalekuak hartuko ditu kontuan:

- a) Haur edo gazteei zuzendutako euskara hutseko udalekuak izatea.
- b) Udalekuak 5 egun baino gehiago eta 15 egun baino gutxiago irautea eta udako oporren garaian eskaintzea (ekainaren 20tik irailaren 30era bitarte).

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira honako hauek:

- a) Txango eta bidaiak.
- b) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten kirol campusak.
- c) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten hiri-udalekuak edo udaleku irekiak.

**3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.** Xede hauetarako, guztira, 2.500,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2026ko ekitaldiko aurrekontuetako Udalekuetarako dirulaguntzak kontu-sailean jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Aurrekontuetan aurreikusitako gehieneko diru-esleipena garaiz eta behar bezala aurkezten diren eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean hainbanatuko da, baldin eta laguntzen guztizko zenbatekoak horretarako gordetako esleipen ekonomikoa gainditzen badu.

Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahal izanen du dirulaguntza.

Dirulaguntza gehienez gastuaren %40koa izanen da.

**4. Deialdiaren publizitatea.** Deialdi hau aditzera emateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean zehaztutakoa beteko da eta gainera prentsa-oharra bidaliko da tokiko hedabideetara, eta jakinarazpena igorriko zaie dirulaguntzaren hartzaile diren balizko onuradunei. Horretaz gain, deialdiaren testu osoa Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko webgunean argitaratuko da ([www.iparmank.eus](http://www.iparmank.eus)).

**5. Eskabideak aurkezteko epea.** Eskabideak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 30etik irailaren 30era bitartekoa izanen da. Epea egun horretan eguerdiko 15:00etan bukatuko da.

Neba-arrebak direnen kasuan, amak/aitak/tutoreak eskaera bat egin beharko du senide bakoitzeko.

**6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.** Deialdi honetako dirulaguntza eskuratzeko eskabidea udalekura joan den haur edo gaztea ordezkatzeko duen aita/ama/tutoreak egin beharko du, eranskinean azaltzen den eredia baliatuz.

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Udalekura joan den haurra edo gaztea ordezkatzeko duen aita/ama/tutorearen NANaren fotokopia.
- b) Udalekura joan denaren erroldatze-agiria (antzinatasuna adierazi beharko da ezinbestean).
- c) Udalekuari buruzko ezaugarriak (iraupena, hizkuntza, egitaraua) biltzen dituen dokumentua —entitate antolatzaileak izenpetua— edo publizitaterako erabili den euskarria.
- d) Udalekua antolatu duen entitateak izenpeturiko asistentzia egiaztagiria.
- e) Eskatzaileak udalekuaren gastu osoa ordaindu izanaren ordainagiria(k).

Dokumentazioa Euskara Zerbitzuan edo Imozko, Basaburuko edo Odietako udaletxeetan aurkeztu behar da. Hona helbidea:

**Imotz, Basaburua, Ultzama eta Odietako Euskara Zerbitzua**  
**San Pedro z.g. 1. solairua.**  
**31797 Larraintzar**  
**948 305134**  
**[ezubioa@iparmank.eus](mailto:ezubioa@iparmank.eus)**

**7. Eskatzaileek zein udalekuek bete beharreko baldintzak.** Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak (baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira):

- a) Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslea

izatea.

b) Euskara Zerbitzua osatzen duten udalerrietako batean erroldatuta egotea gutxienez dirulaguntza eskatzen den data baino urtebete lehenagotik.

c) Udal horiekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.

**8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea.** Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun izanen ditu eskatzaileak akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

**9. Ebazpena.** Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariak emanen du Euskara Batzordearen irizpena ikusita, hamabost eguneko epean. Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen ebazpenean nori eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

**10. Bateragarritasuna.** Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

**11. Dirulaguntzak itzultzea.** Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.

b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.

c) Bateriaezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.

d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

**12. Arau-hauste eta zehapenak.** Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Lege Orokorrak eta urriaren 1eko 39/2015 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorrak aginduko dute. Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoa izanen da.

**13. Datuen babesa.** Eskatzaileen datuak Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek ematen dituzten datuak Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da

dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Imotz, Basaburua, Ultzama eta Odietako Zerbitzua izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak bertako bulegoan (Larraitzar, San Pedro z.g. 1. solairua) egikaritu ahal izango dira.

**14. Ordezko arauak.** Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

**15. Errekurtsoak.** Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetan hasiko da epe hori.

Leitzan, 2026ko apirilaren 14an



Aintzane Arraiza Begiristain  
Mankomunitateburua

**EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA  
GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA**

**Eskatzailearen datuak (haur edo gaztearen ama/aita/tutorea):**

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Kontu korrontearen zenbakia:

**Udalekuari buruzko datuak:**

- ✓ Joan den haur edo gaztearen izen-abizenak:
- ✓ Entitate antolatzailea:
- ✓ Datak:
- ✓ Matrikularen zenbatekoa:

euro
------

**Data eta sinadura**

Jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi batean sartuko direla Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko. Betiere, horren helburua izango da diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko zure eskubideak horren aurrean egikaritu ahal izango dituzu, eta horretarako jo beharko duzu NANarekin Sakanako Mankomunitateak jendearendako harrera bulegora (Lakuntzan, Uriz 32).

**EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUNETARA JOAN DIREN HAUR ETA  
GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

Laguntza eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)</b>

Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)